



ASOCIACION GUIPUZCOANA DE AUTISMO

GAUTENA

GUIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA



Jarduera Txostena
2013



GAUTENA

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE AUTISMO
GIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA

C/ Francisco López Alen, 4
20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Apartado 1000
20080 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tel.: 943 21 53 44 / 21 52 49

Fax: 943 21 52 39

info@gautena.org

www.gautena.org



Aurkezpena

2

1. OROKORRA

3

1.1. Aliantzak eta kolaborazioak

3

2. KUDEAKETA

3

2.1. Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Planaren segimendua

3

2.2. Zerbitzuak

3

2.2.1 Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzua

3

2.2.2. Hezkuntza Zerbitzua

4

2.2.3. Eguneko Arreta Zerbitzua

6

2.2.4. Etxebizitza Zerbitzua

7

2.2.5. Familiei Laguntzeko Zerbitzua

8

2.3. Kalitatea eta jakintza

10

2.3.1 Kalitate-ereduak eta -sistemak aplikatzea

10

2.3.2. Jakintza kudeatzea

11

2.3.3. I+G+b

12

2.4. Beste jarduera batzuk

13

2.4.1 Urteko sentsibilizazio- kanpaina

13

2.4.2 Hitzaldi-zikloa

13

2.4.3 Lan-bisitak

13

3. URTEKO KONTUAK

14

3.1. Egoeraren balantzea

14

3.2. Eraitzen kontua

15



Aurkezpena

Urtero bezala, Jarduera Memoria honen bidez, GAUTENAREN 2013ko nondik norakoen berri ematera gatoz; bazkideei, laguntzaileei, herri-administrazioei eta gure bilakaeraren inguruko interesa duten bestelako eragileei informazioa helarazteko.

Erakundearen ohiko jardueraren ikuspegitik, finantzaketaren doikuntza orokorra egiten jarraitu dugu 2013. urtean ere; haatik, funtsean eutsi ahal izan diogu, oro har,

jarduera osoari.

Instalazioak

sortzeko

edota

hobetzeko

inbertsioei

dagokienez,

nabarmendu

beharra dago

70 m² dituen

lokala

eskuratu

dugula Nafarroa

plazako 5. zenbakian,

Zumarragako Udalak lagata, eta lokal

hori erabat berritu dugula Diagnostiko eta

Tratamendu programarako, Familientzako

Laguntza programarako eta Aisialdiko

ekintzetarako, bai Zumarragarako

bertarako, bai Urola-Goierri eskualde

osorako.

Aparteko gertakari gisa azpimarratzeko modukoak dira maiatzaren 3an, 4an eta 5ean Donostiako Kursaal jauregian Autismoaren Ikerkuntzako INFAR Kongresua –munduko garrantzitsuena– egin izana, eta GAUTENA anfitrioi izan zuen Autism-Europe erakundearen Urteko Batzarra Donostian egin izana maiatzaren 4an eta 5ean. Topaketa hura zela eta, Europako hainbat estatutako autismo-erakundeak GAUTENAREN zerbitzuetan izan ziren bisitan, eta balioetsi egin zituzten.

Erakundeen kudeaketaren ikuspegitik, GAUTENAK aurrera jarraitzen du 2012-2015 Plan Estrategikoan definitutako

hiru lerroekiko koherentziaz lan egiten. Hala, helburu hauek erdiesteko hainbat ekimen abiarazi ditugu:

- Bizi Proiektuaren bidez, pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzea, eta berdintasuna eta irisgarritasuna ardatz izango dituen gizarte-partaidetza eraginkorra sustatzea.
- Laguntza-zerbitzuen sistema hobetzea, kalitatean eta jasangarritasunean oinarrituta, adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta beren familien beharrak bizi-ziklo osoan asetzeko.
- Gure erakundea hobetzen jarraitzea, hiru alderditan: kalitatean, sareko elkarlanean eta I+G+b-an.

Esan beharra dago 2013an ezin izan dugula jaso Kutxaren Gizarte Ekintzaren laguntzarik. Eragile hori GAUTENARENTZAT oso garrantzitsua denez, espero dugu egoera hori ez luzatzea eta aurki izatea berriro haren laguntza. Beste behin ere, eskerrak eman nahi dizkiegu GAUTENAREKIN bat egiten duten guztiguztiei: autismo-espektroaren nahas-mendua (AEN) duten pertsonen eta beren familiei, profesionalen, boluntarioen, laguntzaileei, dohaintzak egin dizkiguten enpresei (Auzolagun, Orona, Irizar, Ulma, Osarten, Fagor Arrasate eta Latz S.Coop.), ONCE Fundazioari eta, batez ere, Euskadiko Herri Administrazioari (Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta, bereziki, udalei). Eskerrik asko denoi.

Agur bero bat.

ZUZENDARITZA BATZORDEA



I. OROKORRA



1.1. Aliantzak eta kolaborazioak

- GAUTENAK, bere ibilbidean aurrera eginez, eta 2012-2015 aldirako Plan Estrategikoaren hirugarren ardatzean zehaztutakoarekin bat, hainbat esparru eta forotan aktiboki parte hartzen jarraitzen du, bai Gipuzkoan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Espainian, bai Europan ere.



GAUTENAK Donostian antolatutako, Autismo Europako Batzar Nagusia

2. KUDEAKETA

2.1. Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Planaren segimendua

- 2013an, jarraipena eman diogu 2012-2015 aldirako Plan Estrategikoan eta 2013ko Kudeaketa Planean adierazitako biderei. Zuzendaritza Batzordeak eta Zuzendaritza Kontseiluak horien etengabeko segimenduan eta balioespenean parte hartzen dute.

horietatik 73 pertsonak AEN dutela egiaztatu dugu. Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzura bideratu ditugu.

- Arreta-modalitate berriak garatzen jarraitu dugu, Taldekoa, haurrentzat, nera-beentzat zein gurasoentzat. Era berean, arreta goiztiarrari garrantzi berezia eman diogu.

- Azken hiru hilekoan hasi zuen psikologo batek Talde Klinikoarekin koordinatuta «Etxez etxeko esku-hartzea» modalitate berriari hasiera emateko sortutako talde-lana. Dagoeneko hiru ume artatu ditu. Kontuan izan behar da modalitate horri eutsiko bazaio, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren finantzaketa beharko dela.

2.2. Zerbitzuak

2.2.1 Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzua

- 2013an, kasu berrien kopuruak gora egin du: 116 kasu berri diagnostikatu ditugu, eta



2. Kudeaketa

DIAGNOSTIKO ETA TRATAMENDU ZERBITZUAREN JARDUERA, 2013

Zerbitzuan artatutako kasu berrien kopurua	116
Jasotako laguntza-kontsulten kopurua	6.767
<i>Ebaluazioa/diagnostikoa egiteko kontsultak</i>	342
<i>Ondorengo kontsultak</i>	640
<i>Banakako psikoterapiak</i>	4.344
<i>Taldeko psikoterapiak</i>	1.437
<i>Taldekoak, familiakoak</i>	4
Baja-kopurua	11
Atzerapenaren adierazleak	
Hitzordua eskatu denetik pazientea zentroan hartu arte igarotako egunak	5
Paziente zentroan hartu denetik lehenengo hitzordua izan arte igarotako egunak	10
Lehenengo hitzordua izan denetik diagnostikoa itzuli arte igarotako egunak (*)	56
Diagnostikoa itzuli denetik tratamendua hasi arte igarotako egunak	17

(*) Autismoa diagnostikatzeko beharrezkoak diren proba guztiak egiteko behar den denbora ere sartzen da fase horretan. Hala ere, esan beharra dago talde klinikoarekin lehenengo lau bilerak egin ostean, familiak jada hasierako diagnostikoa izaten duela.

2.2.2. Hezkuntza Zerbitzua

Autismoa pairatzen duten hurrek datozen urteetan izango dituzten hezkuntza-beharren erabateko azterketa eginda eta ikasgela iraunkorren egungo egoera ebaluatuta, Tolosaldean ikasgela berri baterako ituna egiteko eskatu zion GAUTENak Hezkuntza Sailari. 2013ko irailean abiatu zen Tolosako Laskorain ikastolan 5 eta 8 urte bitarteko haurrentzako baliabide berria. Aurtengo ikasturtean ireki da ikasgela, eskualdean bizi diren bost ikaslerekin.

2012-13 ikasturtea 88 ikaslerekin amaitu genuen; 2013-14 ikasturtean, berriz, zertxobait gehiago dira: 91, hain zuzen. Datu aipagarri moduan adierazi behar da aurreikusita ez zeuden bi ikasle gehitu zaizkiola programari ikasturtea abiatua zela, Gipuzkoara bizitzera etorri berriak baitziren haien familiak. 10 ikasle denbora partzialerik eskolatuta daude.

Hernaniko La Inmaculada eskolako ikasgelako Felixek eman zigun berri ona,

bere kategoriako irabazlea izan baitzen Giza Eskubideak sarien Haur eta gazteen IX. Pintura Lehiaketan.

Azken urte hauetan, IKTek (informazioaren eta komunikazioaren teknologiek, alegia) gero eta funtzio garrantzitsuagoa dute ikasgeletako lanean. Alde batetik, ikasleei tresna horiek oso erakargarriak egiten zaizkielako hainbat helburu lantzeko; bestalde, irakasleentzako baliabide-iturri gisa eta bere lana egin ahal izateko oinarritzko elementu gisa. Gero eta material informatiko gehiago erosten dira eta beharren arabera egokituak gainera: tabletak, ukipen-pantailak, sagu egokituak, sakagailuak, pendriveak...

GAUTENAn ezartzen ari garen garapen informatiko berriek (Bizi-proiektua, NUXEO kudeaketa dokumentaleko programa, eMintza...) eta laguntza-produktu berriek eskakizun berri gehiago egiten diete irakasleei; metodologia berrietara egokitu eta horiek erabiltzen trebatu behar dutenez, bestek antolatutako hainbat ikastaro eta GAUTENako bertako barne-saiotan jardun dute ikasteko.



GAUTENAREN HEZKUNTZA ZERBITZUKO IKASGELEN BANAKETA, ZENTROAREN ARABERA		
IKASTETXEA	NON DAGOEN	IKASLE-KOPURUA
La Salle Berrozpe Ikastetxea	Andoain	7
Mariaren Lagundia	Bergara	5
Moguel-Isasi BHI	Eibar	4
Arrateko Andra Mari	Eibar	5
La Inmaculada	Hernani	6
San José Ikastetxea - Gurutzearen Alabak	Hondarribia	6
Intxaurren Ikastola	Donostia	5
San Ignacio Ikastetxea	Donostia	5
La Salle Ikastetxea	Donostia	5
Karmelo Ikastetxea	Donostia	6
Oleta Ikastola	Donostia	5
Summa Aldapeta	Donostia	6
Langaitz Ikastola	Errenteria	6
La Salle ikastetxea	Zarautz	5
La Salle San José	Beasain	4
La Salle San Martzial	Irun	6
Laskurain Ikastola	Tolosa	5
OROTARA		91

 Ikuspegi sentsorialaren aldetik laguntza handiagoa behar duten ikasleei eman beharreko arretan sakontzeko osatutako berrikuntza-taldearekin jarraitu dugu. Aurreikusitako bisitaldiak gauzatu dira, NHBBZra (Nafarroako

Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa) eta Aransgira joan baita. Bildutako informazio guztia batera eta sistematikoki jasoko duen azken dokumentua prestatzen ari da une hauetan.

 Beste alde batetik, Adimen Ezintasuna dutenen aldeko Elkarleen Euskal Federazioaren (FEVAS) koordinazio-bileretan parte hartzen jarraitu dugu,

hezkuntza-aldiarekin lotutako gaien inguruko segimendua egiteko. Haatik, aurten ez gara hain sarri bildu. Azaroaren 30ean Bilbon senitartekoekin egindako topagunean, gai hau aukeratu zen:

«Hezkuntza-alorreko teknologiak: ikuspegi berri baterantz».

 Oso lotura estua izan da ikasleak graduak, prestakuntza-zikloak, masterrak eta abar egiten dituzten Eskola eta Fakultateekin praktikalki

antolatzeko. Aurten, gainera, ohiko lankidetzaz gain, abiatu berri diren beste prestakuntza-ziklo batzuen bidez handitu dugu lan-arlo hau, eta 17 lagunek hartu dute parte beren praktikak ikasgela iraunkorretan egiten.



Zumarragako lokal berriaren inaugurazioa



2. Kudeaketa

2.2.3. Eguneko Arreta Zerbitzua

- 2013an, Eguneko Arreta Zerbitzuko zentro eta unitateetarako planifikatutako jarduera guztiak aurreikusitako moduan gauzatu ditugu.
- Halaber nabarmendu behar da aurten barne-promozioko prozesu bat abiarazi dela Eguneko Arretako Zerbitzuan, erabiltzaile berriak hartu izanak eragindako plaza berri bat betetzeko. Eszedentziak direla eta aldi baterako beteak ziren beste plaza batzuk ere betiko estali beharra izan zen. Denera lau profesional-plaza bete dira.
- Erabiltzaile-kopurua (une hauetan, 98) eta horien laguntza-beharra aztertuta egindako prozesua aintzat hartuta, 2013an bi pertsona gehiago hasi direlarik zerbitzuan, ikusi da uneko baliabideak berriz banatu beharra dagoela.
- Zehazki, 98 erabiltzaileak bestela banatzea proposatzen da, baliabideen egiturari eta erabiltzaile- eta profesional-kopuruari eusten saiatuta eta taldeak egitura homogeneousagoko kolektibotan antolatuta.
- Hasiera batean lehenetsi da erabiltzaile zaharrenak edo mugitzeko laguntza handiena behar dutenak zentro guztietan haientzako egokitzapen handiena eta kanpoaldean eremu zabalena duen hartara eramatea.
- Hori horrela, urte askoko 7 erabiltzaileko talde bat eratu da, bi profesionalek artatua eta jarduna malgua duena, erabiltzaileen adinaren ondorioz eragindako beharren arabera eta zahartze aktiboko oinarritzko jardueretan oinarritua. Zentroko gainerako erabiltzaileak ere urtetsuak dira, edota ibiltzeko laguntza behar dute.
- Aldaketa horri esker beste lekualdatze batzuk egin ahal izan ditugu eguneko zentro guztietan.

- Helburu hauek proposatu dira aldatzeko proposamenean:
 - Gizatalde osoari arreta hobea ematea
 - Oso talde heterogeneo batzuek osatutako zentro batzuetan, erabiltzaile aktiboenen erritmoa beste batzuen erritmora egokitzea
 - Pertsonak beren une bitalaren arabera eta mugimendu-beharren arabera multzokatzea
 - Erabiltzaile zaharrenentzat esparru ezin hobea bilatzea:
 - Alde eta espazio seguru eta zabalak.
 - Mugikortasuna areagotzeko aukera emango duten baliabideak (2 furgoneta)
 - Oztopo arkitektonikorik gabeko espazioa
 - EZ DUT ULERTZEN
 - Ordutegiak eta egutegiak malgutzeko
- Proiektu Bitalak aplikatzen segitu dugu. Urtearen lehen zatian dokumentuak formatu digitalean bildu da; tresna GIZANETen ezarri zenetik, Erakundearen intranetean jardun da.
- Esparru horretan, aipatu behar dugu TEACCHari eta Zahartzeari eta Desgatasunari buruzko trebakuntza espezifikoak eskaini dugula Eguneko Arreta Zerbitzuan; azken hori luzaro ari ziren profesionalak eskatzen.
- Halaber aldatu dira GUREAK-en zentro okupazionalen txandakako praktiken erreferentzia-zentroak, taldeak atxikita.
- Garrantzitsua da, halaber, gure inguruko prestakuntza-entitateekin daukagun konpromisoari eustea. Horregatik, hamazazpi ikasle praktikak egiten ibili dira eguneko zentro eta unitateetan, ikasturtean zehar.
- Guztira 98 pertsonari eman diogu laguntza, 28 profesionalen bidez. Langile horietatik hiruk lanaldi partzialeko kontratua dute, lana eta familia bateragarriak izateko kontratuak estaltzen ari baitira, bost zentro eta unitatetan.



EGUNEKO ARRETA ZERBITZUAREN BANAKETA ZENTROAREN ARABERA

IKASTETXEA	NON DAGOEN	ERABILTZAILE	PROFESIONAL
Artolamendiko Eguneko Zentroa	Donostia	33	8+1
Azkarate Enea Eguneko Zentroa	Donostia	22	7+1
Oriamendiko Eguneko Zentroa	Donostia	21	5
Errenteriako komunitatean integratutako unitatea	Errenteria	11	2+1
Berioko komunitatean integratutako unitatea	Donostia	11	3
OROTARA		98	28

2.2.4. Etxebizitza Zerbitzua

 Zerbitzuaren egituraren lanpostu berri bat dago 2013ko uztailaren 1etik aurrera, eta dagoeneko 70 lanpostu finko ditu. Berioko etxebizitzari esleitu zaio lanpostu berria, toki librea baitzuen horretarako, eta etxebizitzaren egitura lehen bezala atxiki da. Hamar taldetan banatuta

bera egiten da. Horrek aukera eman digu etxebizitzaren beharren segimendu hobea eta eraginkorragoa egiteko.

 Etxebizitzak ondo ibiliko badira, horien mantentze-lana eta kontserbazioa dira funtsezko zutabeetako bat. Azken urteetako jardun-lerroei jarraituz, aurten ere egin ditugu hobekuntzak hainbat instalaziotan, zehazki Berioko etxebizitzan komunak hobetu dira, dutxen egokitzea hobetuta. Orobat, maiatzean zehar hobekuntza batzuk egin genituen Oriamendiko eta Goizaleko etxeetan, batik bat etxaurre eta teilatuetako egiturak konpontzen.

 Atxiki dugu aurten ere Atzegi erakundeak antolatutako jardueretan dugun parte-hartze aktiboa, ugariagoa gainera,

horiek aukera paregabea ematen digutelako gure zerbitzuaz kanpoko beste pertsona batzuekin harremanetan izateko. Ildo beretik, Urnietako Udalak antolatutako kirol-jardueretan ere parte hartzen ari gara.



GAUTENAK Getarian antolatutako, The Autistix eta Motxila 21en kontzertua

daude, eta bakoitzak bere antolamendua eta jarduerak ditu. Segimendu- eta koordinazio-lanetarako ere banaketa hori



2. Kudeaketa



Aurreko urtean Marian Nieto nutrizionistarekin batera egindako azterketatik abiatuta, haren emaitzak

ikusirik, programa pertsonalizatuak egiten hasiak gara, orain artean oso emaitza onak eman dituztenak.

ETXEBIZITZA ZERBITZUAREN BANAKETA, ZENTROAREN ARABERA

IKASTETXEA	NON DAGOEN	ERABILTZAILE
Oriamendi Etxea	Donostia	15
Goizalde	Donostia	14
Zarategi pasealekuko etxebizitza	Donostia	8
Txara	Donostia	12
Azkorte Etxea	Urnieta	15
Berio	Donostia	7
OROTARA		70

2.2.5. Familiei Laguntzeko Zerbitzua



Zerbitzuaren ohiko arlo guztiak lehenagoko baldintza beretan mantendu ditugu.

Dakizuen moduan, zerbitzuak aisialdia eta denbora librearen dituen ardatz.

FAMILIA-TALDEAK

TALDEA	PARTE-HARTZAILE	EDUKIA
ASPERGER-EN SINDROMEAK	35 parte-hartzaile	Asperger-en sindromea duten pertsonen guraso guztiei eragiten dieten gaiak
FAMILIA BERRIAK	15 familia	Elkarri laguntzea
FAMILIENTZAKO ESKOLA	15 familia	Taldeari interesatzen zaizkion gaiak
EIBAR INGURUA	15 parte-hartzaile	Inguruko familia berriak
ZUMARRAGA INGURUA	15 familia	Taldeari interesatzen zaizkion gaiak
ASPERGER-EN SINDROMEAK DUTEN HELDUAK	15 pertsona	Taldeari interesatzen zaizkion gaiak



IMFAR-en kongresuari esker Donosti-Autismek antolatutako hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izan dugu.



Apirilaren 2aren inguruan Autismoaren Nazioarteko Eguna izan zen, eta egun hori

ospatzeko hainbat jarduera antolatu genituen.



Bestalde, Gabonetan Kursaal jauregiko eta FICOBako GHP parkeetan izan ginen berriro ere.



■ Aurreko urteetan bezala, familiei atsedena emateko ATSEDEN programa eta familiekin esku hartzeko GERTU programa garatu ditugu. Aurten, Atsedeen programak iazko maiztasunari eutsi dio; haatik, ez ahaztu nahi genukeena baino nahiko txikiagoa dela.

■ Aisialdi-jarduerak gauzatzeko, boluntarioen laguntza ezin estimatuzkoa jasotzen dugu. Lerro hauen bidez, haien ekarpena nabarmendu nahi dugu, eta eskerrak eman nahi dizkiegu.

■ Era berean, Asperger-en sindromea duten pertsonekin azkenaldian egindako jarduerak garatzen jarraitu dugu.



Arantzazun egindako familien topaketa

■ Gure iritziz, aisialdia ezinbesteko alderdia da artatzen ditugun pertsonari laguntzeko. Funtsezkoa da bai garapen pertsonalari, bai gizarteratzeari dagokienez, eta, aldi berean, familiei laguntza emateko balio du.

■ Azpimarratu nahi genuke aurten jarduera berri bati hasiera eman diogula: Asperger-en sindromea duten helduentzako egonaldiak, hain zuzen.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

PROGRAMA	JARDUERA	PARTE-HARTZ.	MONIT.
LARUNBATAK, GAZTEAK	DONOSTIA (AIETE) 16:00-20:00	15	7
IGANDEAK, GAZTEAK	DONOSTIA 16:00-20:00	8	2
IGERILEKUA, HAURRAK	DONOSTIA (ALTZA), astelehen, asteazken eta ostegunetan	10	3
IGERILEKUA, GAZTEAK	DONOSTIA (ANOETA), astelehen eta asteazkenetan	8	2
AISIALDIA, ZARAUTZ	ZARAUTZ (ATZEGIren lokala), astearte eta ostegunetan	4	3
AISIALDIAZUMARRAGA	ZUMARRAGALARUNBATETAN (16:00-20:00)	5	3
LARUNBATAK, HAURRAK	DONOSTIA (BERIO)	4	3
LARUNBATAK, GNO			



2. Kudeaketa



Familiei Laguntzeko Zerbitzuak, ohiko jarduera horiek antolatzeaz gain, laguntza eta orientabidea ematen die GAUTENAKo

familiei. Jimmy Brosa eta Ainara Sanz (gizarte-langileak) dira zerbitzu horretako langileak.

ASPERGER-EN SINDROMEA			
PROGRAMA	JARDUERA	HARTZ.	MONIT.
LARUNBATAK, GAZTEAK	DONOSTIA 16:00-20:00	10	2
UDALEKU IREKIAK	Ibilaldiak uztailean 10:00-14:00	7	2
IRTEERA	SENDA VIVA Uztailaren 26-30	14	3
ANTZERKIA	DONOSTIA (BERIO)	14	3
ALDI BATERAKO EGONALDIAK	DONOSTIA (BERIO)	6	1

UDAKO EGITARAUA			
PROGRAMA	JARDUERA	HARTZ.	MONIT.
UDALEKU INTEGRATUAK	AEN duten haurrek GAUTENAKo ez diren programetan parte hartzea	10	8
UDALEKU IREKIAK	AEN duten haur eta gazteak paseatzea	65	34
	Zarautz	4	2
	Elgoibar	6	3
	Arrasate	3	
	Donostia, gazteak	10	5
	Donostia, haurrak	25	14
	Zumarraga	4	2
	Irun	7	3
	Hondarribia	6	3
ABUZTUKO UDALEKUAK	Hamabi eguneko egonaldiak aterpetxeetan	113	73
	Abuztuaren 1-15, DONEZTEBE (helduak)	14	12
	Abuztuaren 1-12 LIZARRA (helduak)	18	10
	Abuztuaren 1-12 BILBO (helduak)	16	8
	Abuztuaren 1-12, SAN ASENSIO (gazteak)	14	10
	Abuztuaren 3-9, BERIO (haurrak)	12	8
	Abuztuaren 16-27, DONEZTEBE (haurrak)	17	13
	Abuztuaren 16-27, SAN ASENSIO (gazteak)	22	12

2.3. Kalitatea eta jakintza

2.3.1 Kalitate-ereduak eta -sistemak aplikatzea



2013an, AENOR erakundearen ikuskapena betiko baztertzea erabaki genuen; besteak

beste, ikuskapenaren prozedurek gure entitatean zuten ezarpen-maila ikusita, eta EFQM prozesuetan zuen integrazio-maila balioetsi ostean.



Barne-autoebaluazio bat egiteko konpromisoa hartu genuen, baina ezin izan



genuen
2013an
gauzatu,
2014ko
hasieran
baizik, SAYMA
Aholkulariaren
laguntzaz.



Era berean,
formalki
FEAPS
kalitate-ereduaren
raberako egiaztatze-prozesuari lotuta
jarraitzen dugu. FEAPS-ek egin beharreko
Ebaluazio Bisita ere urte-amaierako
aurreikusita bazegoen ere, ekipo haren
agenda-arazoak zirela eta 2014ko otsailera
atzeratu zen.



DonostiAutism-en
GAUTENaren
partehartzea



Proiektu Bitala,
printzipio etikoak,
pertsonearen
eskubideetan
oinarritutako
ikuspegia ezartzeko
lanean jarraitzen
dugu, bai eta
gai jakin batzuk
monografikoki
jorratzen dituzten

profesionalez osatutako Hobetzeko
Taldeak sortzen ere. Hauek dira gai horiek:
Zahartzea, Asperger-en sindromea,
Enplegua, Teknologia Berriak...

2.3.2. Jakintza kudeatzea



GAUTENaren prestakuntza-plana
kronograma honen arabera garatu zen:

Jarduera	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
Proiektu Bitalaren esparru kontzeptuala eta tresnen erabilera											
Zentzumenen integrazioa											
Epilepsia											
Lehen laguntza											
TEACCH metodologia											
Zahartzea eta desgaitasuna											
Gurasoentzako laguntza emozionala											
Garapenaren asalduekiko komorbilitatea duten patologien diagnostika											
Komunikazioa Enpresan: Kanalak eta Zuzendaritza Taldearen inplikazioa											
Ikerkuntza, Garapena eta Berrikuntzaren garrantzia gizarte-lanaren esparruan Sektorearen nahiz erakunde publikoen ekimenekiko sinergia											
Gidaritza											
Oinarrizko prestakuntzako modulua											



2. Kudeaketa

Zerbitzu guztietako langileentzako prestakuntza orokorra	
Hezkuntzaren arloko prestakuntza espezifikoa	
Eguneko Arreta Zerbitzuko langileentzako prestakuntza espezifikoa	
Mediku- eta psikologo-taldearentzako prestakuntza espezifikoa	
Etxebizitza-zerbitzuko langileentzako prestakuntza espezifikoa	
Zuzendaritza-taldeko, talde klinikoko, kalitate-taldeko profesionalak eta Koordinatzaile laguntzaileak	
Zerbitzu zentraleko langileentzako prestakuntza	
Boluntarioentzako eta ordezkapenak egiten dituzten langileentzako prestakuntza	
Familientzako laguntza-zerbitzuko langileentzako prestakuntza	



*Irrien Lagunekin
izandako elkarlana*

2.3.3. I+G+b

- Azterketa- eta ikerketa-lerro nagusi hauek jarri ditugu martxan alor honetan:
 - «MINTZALDE» proiektua, eMintza tresnaren erabileraren eraginkortasuna zientifikoki aztertzeko. Poliklinika Gipuzkoa Fundazioarekin lankidetzan.
 - «X kromosoma hauskorrenaren sindromea diagnostikatua duen populazioaren gainean egindako esperientzio-fasean dagoen botika baten saio kliniko bat», sindromea duten pertsonak sozializatzen lagun lezakeen belaunaldi berriko botika bat testatzeko. Poliklinika Gipuzkoa Fundazioarekin lankidetzan, besteak beste.
 - «Tratu txarren definizioa adimen- eta garapen-desgaitasunaren alorrean». FEVAS erakundearekin lankidetzan.
 - «Gizarte-enplegu aurreratua eta gaitasunen araberako kudeaketa». FEVAS erakundearen babesarekin.
 - «IKUSGIZA proiektua» (lehen, PROINSO), adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen erabakiak hartzen laguntzeko aplikazioa. GAIA erakundearekiko lankidetzan.
 - «Living lab soziosanitario bat sortzea» Adimenaren eta garapenaren desgaitasunen bat duten pertsonen osasun-arretaren ebaluaziotik abiatzen da profesionalen eta zerbitzuen profil berriak definitzeko. Lankidetzan FEVAS-en esparruan.



2.4. Beste jarduera batzuk

2.4.1 Urteko sentsibilizazio-kanpaina

 Murrizketa ekonomikoen ondorioa, GAUTENAK ezin izan du aurten egin urtero egin ohi zuen Autismoari buruzko Sentsibilizazio Kanpaina; hala ere, INFARren Kongresua eta Autism Europe-ren urteko batzarra Donsotian egin izana baliatu zuen autismoaren eta GAUTENAREN jardunaren berri emateko.

 Autismoari buruzko Sentsibilizatzeko nazioarteko eguna (apirilaren 2a, alegia) ere baliatu zen komunikabideetan agertzeko.

 Halaber baliatu ziren ekitaldi batzuk, hala nola Zumarragako lokalaren inaugurazioa, 2013ko urrian.

2.4.2 Hitzaldi-zikloa

 Hitzaldi hauek izan ditugu azken urtean:

- Madrilgo Cavendish zentroko zuzendari Pilar Martín Borreguerok «Entender a la

persona con Síndrome de Asperger» izeneko hitzaldia eskaini zuen.

- Manchesterko Unibertsitateko Hezkuntza Eskolako Hezkuntza-laguntza eta inklusioko irakasle Neil Humphreyk «Bullyinga Autismoaren Esparruko Nahasmenduetan eta Asperger-en sindromearen» izeneko hitzaldia eskaini zuen.

- «Asperger-en sindromearekin batera bizitzea» izeneko mahai-ingurua, non Asperger-en sindromea diagnostikatutako helduek beren bizitzan izandako esperientzien berri eman baitzuten.

 Jende ugari izan zen zikloan, eta oso balorazio ona jaso zuen. Autismoa dutenen senideak, profesionalak, ikasleak eta gaiarekiko interesa dutenak bertaratu ziren.

2.4.3 Lan-bisitak

 Bestalde, Espainiako hainbat autonomia-erkidegotako ordezkariak eta beste herrialde batzuetako bisita-taldeak hartu ditu GAUTENAK.

- Maiatzaren 3an: Autism-Europe-ko kide diren Europako hainbat estatutako autismo-erakundeek bisita izan genuen.
- Maiatzaren 6an eta 7an: Dorota Wasik andereñoa (Fundacja Wspólnota Nadziei, –Itxaropenaren Erkidegoa Fundazioa–, Krakovia, Polonia)
- Alemaniako Autismus Deutschland-en bisita, maiatzean
- Uztailaren 19an: AUTRADE elkarteak (Ciudad Real)
- Irailaren 16an: Le Village nº 1 Reine Fabiola elkarteak (Anberes, Belgika)
- Urriaren 2an: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru diputatua eta haren lantaldea.

3. URTEKO KONTUAK

3.1. Egoeraren balantzeara

GAUTENA (AUTISMOA ETA BESTELAKO GARAPEN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN
PERTSONEN GURASOEN GIPUZKOAKO ELKARTEA)
EGOERAREN BALANTZEA

URTEKO EKITALDIA, 2013KO ABENDUAREN 31N AMAITUTA
(eurotan)

AKTIBOA		2013	2012	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		2013	2012
A) AKTIBO EZ KORRONTEA		4.889.985	5.049.052	A) ONDARE GARBIA		5.047.919	5.194.664
I. Ibilgetu ukiezina		826.840	703.578	A-1) Funts propioak		292.572	291.002
III. Ibilgetu materiala		4.054.229	4.336.558	I. Fundazio-zuzkidura/Gizarte-funtsa.		291.002	286.729
V. Epe luzera egindako inbertsio finantzarioak		8.916	8.916	IV. Ekitaldiko soberakinak		1.570	4.273
				A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		4.755.347	4.903.662
B) AKTIBO KORRONTEA		1.174.531	1.120.647	B) PASIBO EZ KORRONTEA		99.239	93.951
III. Erabiltzaileak eta jarduera propioaren beste zordun batzuk.		88.060	117.809	I. Epe luzerako hornidurak		99.239	93.951
IV. Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk		439.112	447.741	PASIBO KORRONTEA		917.358	881.084
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.		647.359	555.097	II. Epe laburrerako hornidurak		15.600	16.400
				VI. Hartzek. komer. eta ordaindu behar. beste kontu batzuk		901.758	852.923
				VII. Epe motzerako periodifikazioak		0	11.761
AKTIBOA, GUZTIRA		6.064.516	6.169.699	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		6.064.516	6.169.699

3.2. Emaizen kontua

GAUTENA (AUTISMOA ETA BESTELAKO GARAPEN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN
PERTSONEN GURASOEN GIPUZKOAKO ELKARTEA)
EMAITZEN KONTUA
URTEKO EKITALDIA, 2013KO ABENDUAREN 31N AMAITUA
(eurotan)

	2013	2012
1. Erakundeak bere jarduera propioagatik izandako diru-sarrerak	8.103.792	8.068.461
7. Esplotazioko beste sarrera batzuk	1.076	4.723
8. Langile-gastuak	(6.159.747)	(6.183.972)
9. Ustiapeneko beste gastu batzuk	(1.944.146)	(1.877.349)
10. Ibilgetuaren amortizazioa	(329.290)	(330.664)
11. Ekitaldiaren emaitzara aldatutako eta jarduera propioari lotutako diru-laguntza, dohaintza eta kapital-legatuak.	318.538	316.449
14. Bestelako emaitzak	16.795	12.427
A) USTIAPEN-EMAITZA	7.018	10.075
14. Sarrera finantzarioak	229	554
15. Gastu finantzarioak	(5.677)	(6.356)
B) EMAITZA FINANTZARIOA	(5.448)	(5.802)
C) ZERGAK APLIKATU AURREKO EMAITZA	1.570	4.273
D) EKITALDIKO SOBERAKINAK	1.570	4.273

